



Igandeko Sagardo Eguna izan ohi da jaietako egun handiena.

Martuteneko jaiak, «auzo harrotasuna» indartzeko

Ofizialki ostiralean hasiko diren arren, bihartik aurrera jada hainbat jarduera izango dira Martutenen, auzoko jaiak ospatzeko. Adin guztietarako zereginak antolatu dituzte, «auzolanean».

✎ Xalba Ramirez Cruz
 📷 Beñat Parra Rodriguez

Martutenekoa izatea, gaur egun, «Donostiako turismo-tik urrun dagoen auzo baten taupada bihotzean eramatea da». Halaxe, harrotasun horrekin abiatuko dituzte datorren hastean auzoko jaiak, lelo honekin: «Martutenekoa naiz eta harro nago!». Zabaldutik irakurketan, ondorengo irakur dai-teke: «Hemen, hurbiltasunaren balioa

ez da soilik geografikoa: gizatiarra da. Martuteneko kaleak istorio partekatuz, elkarrizketa zintzoz eta iragarri beharrik ez duen elkartasunez ehunduta daude. Auzotarra izaten da inongo presarik gabe nola zauden galdetzen dizuna, auzoko denda eta tabernetan ezagutzen zaituzte, gaurkotasunarekin nahasten diren oroitzapen horiek guztiak dira».

Auzo txikia izanagatik –2.700 biztanle inguru dira–, jaietako balio handia ematen diete bizilagunek, komunitatean sakontzeko balio dutelako: «Asko aldatu da auzo hau historian zehar, baina izaera ez da aldatu. Denok ezagutzen dugu elkar, eta horregatik maite dugu gure auzoa», diote jai batzordeko kideek.

Hain zuzen, azaldu dutenez, auzolana da jaien oinarrietako bat. «Zazpi lagun inguru gara jai batzordean, baina inguruan jende mordoak inplikatu da, txandak egiten, materiala uzten eta abar... Beti eskertzen da laguntza gehiago, baina pozik gaude auzoaren parte hartzearekin», azaldu dute. Adibide bat jarri dute: «Haurren merienda egiterakoan, izozkiak banatzen dira. Izozi horiek Loco Polo enpresak ematen dizkigu, enpresaren jabea Martuteneko bizilaguna delako». Horrela, bada, ahal duenak ahal bezala egiten du ekarpena, denon artean jai herrikoiak osatuz.

Adin guztientzako egitaraua
 Jubilatuentzako egitarauarekin

hasiko dira jaiak datorren ostegun-
nean. 100 lagunentzako bazkaria
prestatuko dute, eta tiket «oso gutxi»
geratzen direla ziurtatu dute antola-
tzaileek. Jubilatuen elkartetik atera,
eta erretiratu guztientzako eskaintza
izango da bazkaria, eta, ostean, auzo-
ko jublatu batek parte hartzen duen
antzerki bat izango da.

Haurrek asteazken eta ostiralean
izango dituzte jolasak eta aipaturiko
merienda. Gazte eta helduentzat
ere izango da egitaraurik, noski.
Danborradaz gain, aurtengo musika
eskaintza nabarmendu dute anto-
latzaileek. Larunbatean, hilak 11,
18:00etatik 03:30era auzoan zehar

**«Martutenekoa naiz eta
harro nago!» leloa izango
dute aurten jaiak, eta adin
guztietarako egitaraua
prestatu dute**

barreiatuta DJ eta kontzertu ugari
egongo baitira, «adin eta gustu guz-
tietarako».

Egun handiena, ordea, igandea
izango da aurten ere, sagardo eguna-
rekin. Inguruko herrietako tradizioa
ezagututa, jende mordoa hurbiltzen
da auzora, eta ziur dira aurten ere
halaxe izango dela. Auzoaren harro-
tasunerako asteburu bat gehiago. ●

LARUNBATA 4

12:00

Jubilatuentzako lunch-a jubilatuen etxean, El
Pilar elkarteak lagunduta.

ASTEAZKENA 8

17:00

Haur eta gazteentzako txokolate jana
Arantzazuko Ama Ikastolako jolastokian,
El Pilar elkarteak lagunduta.

Loco Polo izozkien salmenta Ikastolako
jolastokian.

Haur eta gazteentzako jolasak (ezen
mekanikoa, gaztelu interaktiboa, Twister
erraldoia, Holi festa, etab.) Arantzazuko Ama
Ikastolako jolastokian, Martuteneko Haurtxo-
ko eta Gaztelekuaren eskutik.

OSTEGUNA 9

14:00

Auzoko jubilatuentzat bazkaria Txapel
Aundi elkarteak. Bazkarira joan ahal izateko
Auzo Elkartean (astelehen, asteazken eta
ostiralean 18:00-20:00 bitartean) txartelak
salgai egongo dira. Txartelak erosteko azken
eguna: urriak 6.

16:30

Helduentzako antzerkia: *Del amor a la guerra*
Ander Arzelus plazan, Zuentzat taldearen
eskutik.

19:00

DJ-a txosnan.

Auzoko txosnaren irekiera.

Etor zaitez eta gozatu pintxo-poteaz!

OSTIRALA 10

16:45

Haur eta gazteentzako merienda
Ikastolako patioan, Txapel Aundi elkarteak
lagunduta.

Loco Polo izozkien salmenta Ikastolako
jolastokian.

17:15

Ikusle guztientzako, Ikastolako jolastokian:
Porrotx eta Marimototsen *Amazonia gara*.

18:30

Auzoko danborrada auzoko kaleetan zehar.
Irteera: Ikastolako jolastokia.

19:30

Txupinazoa, Alai Tabernaren aurrean.
Animatu eta etorri jaiak hasiera ematera!

20:30

Afaria txosnan. Ogitartekoak erosi eta
txosnan afaltzeko aukera egongo da.

Ilargi Txaranga auzoko kaleetan zehar.
Irteera: Taberna Berri aurrean.

22:00

Kontzertuak parkeko karpan: Itzal Erromeria
eta Primikas DJ-a.



**ARANTZAZUKO AMA
BHI**

**DBH
12-16 urte**



Gora Martuteneko jaiak!

Hk

Martutene ibilbidea, 48, 20014 Donostia

Tel.: 943-89 92 80

LARUNBATA 11

10:00

Futbol txapelketa Martuteneko futbitoan. Parte hartu ahal izateko, aurretik Auzo Elkartean izena eman beharko da: astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:00-20:00 bitartean. Izena emateko azken eguna: urriak 5.

Buruarinen familia tailerra Ikastolako jolastokian. Plaza mugatuak dira eta aurrez izena eman behar da. Izena ematea: 5€ (hasi aurretik ordaindu beharrekoak). Izena ematea auzo elkartean astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:00-20:00 bitartean. Izena emateko azken eguna urriaren 6an izango da. Ekintzan parte-hartzeko, garaiz etortzea ezinbestekoa da.

12:00

Añorgako buruhandiak eta erraldoiak auzoan zehar. Irteera: Ikastolako jolastokitik.

14:30

Herri Bazkaria Ikastolako jolastokian, Euskal Parrillaren eskutik eta Avia gasolindegia laguntzarekin. Jolastokira sartzeko txartela beharko da, beraz, gogoratu txartelak auzoko taberna eta saltokietan urriaren 6aren aurretik erostez (haurren menua, gehienez 16 urte arte da).

Aurtengo gaia 'urte zahar gaueko kotiloia' izango da. Nork emango ditu auzoko kanpaikadak? Animatu eta etor zaitez dotore jantzita.

Bazkaldu ondoren Bingo musikatua egongo da.

18:00

Matraka elektrotxaranga auzoko kaleak girotzen. Irteera: Ikastolako jolastokia.

20:30

Afaria txosnan. Ogitartekoak erosi eta txosnan afaltzeko aukera egongo da.

20:00

Kontzertuak parkeko karpan: Yakovlev 42, BS/RS. Bon Scott Revival Show, La Txama eta Javi Hidalgo DJ-a.

20:45

Zezen Suzkoa elektrotxarangarekin Marie Curie parkean.

22:00

Hatxe DJ-a Itxasne eta Txalpa Max aurreko peatonalean.

IGANDEA 12

09:00

Udaleko txistulariak auzoko kaleetan barrena.

10:00

Herri Kroseko XXXII. Senior eta beteranoen lasterketa. Luzeera: 6.800 m. Serviobras-ek babestua. Izena ematea: 7€ (izena ematea online bakarrik egin ahal izango da urriaren 12ko 9:40 aurretik). Irteera eta helmuga gasolindegia atzealdean izango da.

10:30

Artisau azoka; teknika ezberdinak erabiliz %100ean artisau lana egiten duten 10 postu baino gehiago Arantzazuko Ama Ikastolako jolastokian.

Donostia Arraun Lagunak-en eskutik, ergometroak Arantzazuko Ama Ikastolako jolastokian.

Zabor bilketa auzoan zehar. Zatoz gure auzoa hobetzera, hainbat berdegunetan utzitako zaborra kenduz. Helduek eta txikiek eraiki dezagun Martutene hobe bat. Laguntzaileak: @ecolimpiezaciudadana eta Aizkorri Scout taldea.

11:00

Martuteneko Txiki krosaren lehen edizioa, Marie Curie parkean. Izena ematea online egin beharko da 100 dortsalak amaitu arte.

Ohiko meza hildako eta auzotarren omenez, Pilar Ama Birjinaren aurrean.

11:30

Sagardo Eguna. Sagardo dastaketa, baratzeko produktuak eta artisau postuak Arantzazuko Ama Ikastolako jolastokian. Urtero bezala, goiza, Arrastaka taldeko trikitilariak girotuko dute. Beste urte batez eskerrik zintzoenak bertako baserritarrei eta inguruko sagardogileei.

11:45

Herri Kirolen erakustaldia. Ikastolako jolastokian. Laguntzailea: Euskadi Low Cost gasolindegia.



Urdaneta 18, Donostia.
Tlf: 943-46 75 27

Paseo Ubarburu 30, pol 27
Donostia.
Tlf: 943-47 50 13

www.tiendasestelayo.com



Aizkora: Ander Altuna "Etxeluze", Ioan Goikoetxea, Nerea Arruti eta Malen Barrenetxea.

Harri jasotzea: Izadi Aguirre eta Haritz Aranguren "Norde".

12:00

"Bakailu pil pilean" elkarte arteko txapelketa gastronomikoaren XXVI. Edizioa Arantzazuko Ama Ikastolako jolastokian.

Lehen saria: trofeoa, txapela eta bi lagunentzat afaria Barkaiztegi jatetxean.

Bigarren saria: bi lagunentzat afaria All i Oli jatetxean.

Hirugarren saria: bi txuleta eta sagardoa.

16:00

Futbol txapelketako finalak Martuteneko futbitoan.

17:30

Kontzertuak parkeko karpan: Motxila 21 eta Linaje.

18:00

Lumagorria parrillan parkeko karpan.

21:00

X. Su artifizialen edizioa Valecea pirotekniaren eskutik Sorginzulo plazan. Txapel Aundi elkartearen laguntzaz.

MLE MARTUTENE Lanbide Eskola

Informatika eta Komunikazioak.
Bulegoko Informatika.
Elektrizitatea eta Elektronika.

Lortu DBHko titulua eta
Hasierako LHko gradua.

**Azken plazak
eskuragarri!**
Eman izena orain.

BAINUONTZIAREN ORDEZ DUTXA 8 ORDUTAN

Aldatu ducha *ya!*

Edo zure bainugela osoa
erreformatu behar izanez gero.

Ducha *ya*
betikoak



lehen

"Esperientzia ezin hobea.
Azkarra, garbia,
aholkularitza ona, eta oso
atseginak denak!"

★★★★★ Google

"Dena primeran joan da.
Obra egun batean egin zuten
langile oso kualifikatuekin"

★★★★★ Google



+30.000
ALDAKETATIK GORA



BAINUGELA
EGOKITUAK



INTERES GABEKO
FINANTZAKETA



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Pº Ubarburu, 40 - Pol. 27 Martutene
Tel. 943 444 660

duchaya.com